



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/03/11

Batzar Nagusiak autoenplegurako eta enpresa txikiak eta ertainak sortzeko laguntzen eredia aldatzearen alde agertu dira

Bizkaiko Batzarretako taldeak, Bizkaian autoenplegurako eta enpresa txikiak eta ertainak sortzeko dagozan laguntzen politikeari “beste orientazino bat emotearen” alde agertu dira gaur Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako batzordean. Alexia Castelo batzordekide sozialistak adierazo dauenez, Aldundiak laguntza lerro hori “ebaluetako eta aztertzeko” unea heldu da, neurri batean Aldundiaren laguntza horreei esker lurraldean sortzen diran enpresetan erespide “iraunkorrek eta egonkorrek” sartzeko.

Laguntza horreen kudeaketeari buruzko eztabaidea Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularreko (PP) ordezkariak hasi dau, Batzarretara proposamen bat ekarri dauelako, Foru Aldundiak laguntza horreek handitu daiezan, azken hiru urteetan “bi mila eskari baino gehiago” atzera bota diralako. Eduardo Andrések adierazo dauenez, eskari guztiak onartu izan balira, kontzeptu horretara zuzendutako zenbatekoa “11 milioi eurotan” handiagoa izan beharko litzateke.

Kontrako 11 botogaz (EAJ-PNV, PSE-EE eta Podemos Bizkaia) eta aldeko 3gaz (PP eta EH Bildu), atzera bota dan arauz besteko proposamenean, popularrek eskaria egiten eben Batzar Nagusiek Aldundiari agindua emon deion “aurrekontuan egin beharreko aldaketa guztiak egin daizan”, jasotako eskari “guztiei” erantzun ahal izateko, “beti be eskariok adjudiketako baldintzak beteten baditue”, eta Eduardo Andrések adierazo dauenez, hori zan onartu ez diran eskariakaz gertatzen zana. “Ez dogu esaten gaur egungo diputatu andrearen –diputatua batzordean bertan egon da– errua danik, bera ez egoalako postu horretan” eredia martxan jarri zanean, “baina holangorik ez dala barrero gertauko bermatu behar da”, esan dau Andrések.

Gertautako hori onartu ondoren, Castelok PPri gogoratu deutso hori laguntzak “konkurrentzia librean” emon diralako gertatu dala, “lehiakortasunezko konkurrentzian” emon beharrean. Laguntzak “erregistrora noiz sartzan ziran kontuan izanda” emoten ziran. Batzordekide sozialistak esan dau Aldundia “beharrean ari dala” aurreko ereduari “beste orientazino bat emoteko”, eta autoenpleguaren sustapenera bideratutako aurrekontuak aurtan “%12ko” igoerea izan dauela azpimarratu dau.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek argi eta garbi itzi dabe Aldundiak arlo horretan aurrera eroan behar dauen politikea zelangoa izatea gura daben, PP taldearen arauz besteko proposamenaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskean. Proposamena aurkeztu dauen taldeak ez dau zuzenketa-eskea onartu, baina talde horretako batzordekideak, euren balitz moduan erregistrauko dabela iragarri dau, Batzarretan eztabaidetako eta onesteko.

AUTOENPLEGUKO DEKRETUA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Jeltzaleek eta sozialistek aurkeztu daben zuzenketa-eskean, beste gauza batzuen artean, Aldundiak “enplegu egonkorra eta kalidatezkoa sortzen lagunduko dauen Foru Dekretua” egin daiala jasoten da, “lehentasuna emonez gizarteratzeko gaiztasun gehien daukien lanbakoei eta Bizkairako estrategikoak diran ekoizpen sektoreei”. EAJ-PNVren berbetan, orain arte erabili dan ereduak emaitza “positiboak” lortu ditu, baina laguntzen sisteman “aldaketak” sartzeko unea heldu dala uste dau.

Mikel Baganek (EAJ-PNV) jakinarazo dauenez, Aldundiko gobernua eusten daben talde biek alkarregaz aurkeztu daben proposamenean, “Europa 2020 Estrategiagaz bat etorrira, lan merkaduan sartzeko gaiztasunak” dituen pertsonak lana euren kontura egitea saritzen da, eta ganera, Bizkairako “estrategikoak” diran sektoreetan enpresa eta enplegu barriak sortzea bultzatzen da, “industrian, enplegu berdean, zainketen ekonomian, barrikuntzan eta gizarte arloko ekonomian”, besteak beste.

Podemos Bizkaiak, Foru Administrazioak laguntzak emoteko orduan erespede “etikoak” kontuan izatearen aldeko apustua egin dau, “zainketetan, gizarte arloko ekonomian, enplegu berdean eta arazo gehien dituen pertsonen enpleguan” zentrauz.

EH Bilduk, bere aldetik, “arduraz eta inpotentzia” ikusi eban bere unean eskari guztiak ez zirala beteten, eta autoenplegua “totem” moduan erabiltea kritikau dau, “enplegua sortzeko ardurea pertsonen ganean jarritz”, Administrazioak “eskuak garbitzen dituan” bitartean. Zigor Isuskiza batzordekidea lehiakortasunezko konkurrentziaren, laguntzen “arrakastaren ebaluazioaren” eta partida horreek “handigarriak” izatearen alde agertu da.

ENPLEGU SAILEKO HAMAR EKINTZA “BIZKAIA GOAZEN 2030” ESTRATEGIAN

Beste alde batetik, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako foru diputatu andrea PP taldearen eskariz joan da batzordera, bere sailak Bizkaia Goazen 2030 estrategian izango dituan jarduketetarako ildoak azaltzeko.

Laguntza horreek “egiten dogunaren parte txiki bat” dirala adierazo ostean, Laespadak esan dau “hamar proposamenek, gizarte arloko arazoak, kudeatzaile publiko garen neurrian gure erantzukizun politikoaren betetearen eta arduraren ardatzean” jarten dituala. “Gure apustua, gizarteko errealidadea eraldatuko daben ekintzak bultzatzea eta Bizkaian dagozan pertsona batzuen egoera txarraren errealidade zehatzaren ganean behar egitea” da, esan dau.

Izaera “estrategikoa” daben ekintzen pakete horretan, hasteko, “800.000 euro” inbertidu eta gero legealdi honetan 20 enplegu anezka sortzeko martxan jarri dan Neska programea aitatu dau diputatu andreak. Ganera, gizartetik baztertuta geratzeko arriskua daben iraupen luzeko lanbako pertsonentzako laneratze programea be gehitzen da. Egoera horrek “46.000 pertsonarengan” dau eragina Bizkaian, eta “4.285.000 euro” inbertiduko dira bertan. Horrez gain, gazteen arteko enpleguarratasuna hobetzeko jarduketea be bultzauko da, “2.857.140 euroko” inbertsinoagaz.

Gizarte kohesinoaren arloan, helburu moduan “sare iraunkorra sortzea eta danontzako aukera bardintasunean aurrera egitea” daben zazpi proposamenen barri emon dau Laespadak. Horren barruan sartu dau tratu txarrak jaso dituen emakumeei eta seme-alabei arreteta eskintzera zuzendutako programea. Programa hori “martxan dago daborduko”, eta legealdi honetan “1.100.000 euro” eroango ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Lehentasunen artean, Laespadak zuzentzen dauen sailak, sexu esplotazioaren “ezkutuko” arazoari “lehentasuna” emoteko egingo dau behar. Horretarako plan berezia gauzatuko dau, Emakundegaz eta udalakaz lankidetzan, “150.000 euroko” aurrekontuagaz.

Ganera, “House in first” (Etxebizitza, lehenengoa) eredu gauzatuko da Bizkaian, etxe bako pertsonentzako estrategia “barria”, eta eredu horretara “715.000 euro” bideratuko dira.

Aldundiko beste arduradun batzuk aurretik azaldu daben moduan, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako sailak Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenekoagaz eta Gizarte Ekintzakoagaz batera hartuko dau parte, Bizkaia “gizarte arloko barrikuntzan erreferentziazko nodo” bilakatu daiten, “balioa daben” ekimenak sustatzeko helburuz. Enplegu sailak “550.000 euro” jarriko ditu “4.150.000 eurora” heltzen dan inbertsino osotik.

Bukatzeko, Laespadak zuzentzen dauen sailak “750.000 euro” bideratuko ditu errefuxiauen babesa bermatzera, Goihabe programari esker. Beste “36.000 euro” “nazinoarteko lankidetzarako plan zuzendaria” egitera bideratuko dira; eta “55.000 euro” Bardintasunerako Foru Araua gauzatzera. Azken ekintza bi horreek herritarren partaidetzara zabalduko dira, hainbat bide erabilita. Laespadak aurrekusi dauenez, Bizkaiko Batzar Nagusiek “2016ko azken hiruhilekoan” onartuko dabe Bardintasunerako araua.

BATZARRETAKO TALDEAK

Oposizinoak –EH Bilduk, PPK eta Podemos Bizkaiak– kritikau egin dau Aldundiko Enplegu sailak Bizkaia Goazen 2030 estrategia aurrera erroteko orduan dauen pisu ekonomikoa. “11,3 milioi euroak ez dira 642 milioiko inbertsino osoaren %2ra be ailegetan”, adierazo dau Eduardo Andrések. “Guk konpartitzen ez dogun aurrekontu batean oinarritzen dira”, gehitu dau Podemoseko Mikel Isasik.

“Dana ezin daiteke ikuspuntu ekonomikotik ikusi”, erantzun dau Castelo sozialistak. Bere eretziz, Ahaldun Nagusiak zezeilean aurkeztu eban plana “estrategikoa” da, eta “epe ertaineko eta luzeko” ibilpidea dau. Planak “esparru ekonomikoa gaitzen dau”. “Bere balioa ez dago kantidadeetan, ezaugarrietan baino”, gehitu dau Maria Esther Furundarena jeltzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
11/03/2016

Las Juntas Generales avalan una modificación del modelo de ayudas para autoempleo y creación de pymes

Los grupos junteros vizcaínos se han mostrado hoy conformes, en la comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales, a “reorientar” la política de ayudas al autoempleo y la creación de pequeñas empresas (pymes) en Bizkaia. La apoderada socialista, Alexia Castelo, ha señalado que ha llegado el momento de que la Diputación “evalúe y revise” esta línea de ayudas para introducir criterios “duraderos y estables” en las empresas que nacen en el territorio gracias, en parte, a estas ayudas forales.

El debate sobre la gestión de estas ayudas lo ha iniciado el representante del grupo juntero Popular Vizcaíno (PP) Eduardo Andrés, que traía a la Cámara vizcaína una propuesta para que la Institución foral ampliara las mismas debido a que en los últimos tres años, se habían denegado “más de dos mil solicitudes”, lo que hubiera obligado a la Diputación a engordar la cuantía destinada a este concepto en “11 millones de euros” de haber concedido “todas” las peticiones.

En su proposición no de norma, rechazada por 11 votos en contra (PNV, PSE-EE y Podemos Bizkaia) y 3 a favor (PP y EH Bildu), los populares pretendían que las Juntas Generales instaran a la Diputación “a llevar a cabo las modificaciones presupuestarias necesarias” para poder atender la “totalidad” de las solicitudes recibidas, “siempre y cuando las mismas se ajustasen a las condiciones exigidas para su adjudicación”, algo que sí sucedía –según él-, con las solicitudes rechazadas. “No culpamos a la actual diputada –presente en la comisión- porque no estaba” cuando se puso en marcha el modelo, “pero sí hay que garantizar que no vuelva a suceder”, ha pedido Andrés.

Tras admitir esta circunstancia, Castelo ha recordado al PP que esto se ha producido al darse las ayudas en “libre concurrencia” en lugar de “en concurrencia competitiva”. En realidad, las ayudas se otorgaban en función de “su entrada en registro”. La apoderada socialista ha señalado que la Diputación “está trabajando” para “reorientar” el modelo anterior y ha destacado el incremento presupuestario de un “12%” este año en fomento del autoempleo.

PNV y PSE-EE han dejado claro cómo pretende que sea la política de la Diputación en esta materia con la presentación de una enmienda a la totalidad a la proposición no de norma del PP, que este grupo finalmente no ha aceptado, aunque su apoderado ha anunciado que la registrarán como suya para su debate y aprobación en la Cámara.

DECRETO DE AUTOEMPLEO

En la enmienda de jeltzales y socialistas se recoge, entre otras cuestiones, que la Diputación elabore un “Decreto Foral de Autoempleo” que favorezca la creación de empleo estable y de calidad, “primando a aquellas personas desempleadas con mayores dificultades de inserción y aquellos sectores de producción estratégicos para Bizkaia”. Según el PNV el modelo utilizado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hasta ahora ha tenido resultados “positivos”, aunque cree que ha llegado el momento de introducir "cambios" en el sistema de ayudas.

Mikel Bagan (PNV) ha informado de que, en la propuesta conjunta de las dos formaciones que sustentan al Gobierno foral, se prima el impulso a la inserción laboral por cuenta propia de aquellas personas que tienen “dificultades de inserción en el mercado laboral, en concordancia con la Estrategia Europa 2020”, y, además, se favorece la creación de nuevas empresas y nuevos empleos en sectores “estratégicos” para Bizkaia como “la industria, el empleo verde, la economía de los cuidados, la innovación y la economía social”.

Podemos Bizkaia ha apostado por que la Administración foral incorpore criterios “éticos” a la hora de dar las ayudas, centrándolas en el empleo “de cuidados, la economía social, el empleo verde y las personas con más problemas”

Por su parte, EH Bildu vio con “preocupación e impotencia” cómo no se cubrían todas las solicitudes en su momento y ha criticado que se utilice el autoempleo como un “totem”, “poniendo la responsabilidad de la creación de empleo en las personas”, mientras la Administración “se lava las manos”. Su apoderado Zigor Isuskiza se ha mostrado partidario de la concurrencia competitiva, de la “evaluación del éxito” de las ayudas y de que éstas sean partidas “ampliables”.

DIEZ ACCIONES DEL AREA DE EMPLEO EN “BIZKAIA GOAZEN 2030”

Por otro lado, la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido, a petición del PP, para dar cuenta de las actuaciones de su departamento recogidas en la estrategia Bizkaia Goazen 2030.

Laespada, tras advertir que estas acciones son una “pequeña parte de lo que hacemos”, ha cifrado las mismas en “diez propuestas” que sitúan “los problemas sociales en el eje de la ocupación y preocupación de nuestra responsabilidad política como gestores públicos”. “Nuestra apuesta son las acciones transformadoras de la realidad social y trabajar sobre la realidad concreta de las desventajas que algunas personas se encuentran en Bizkaia”, ha dicho.

Entre este paquete de acciones de carácter “estratégico”, la diputada ha comenzado citando las referentes al empleo, como el programa Neska para crear 20 lanzaderas de empleo en esta legislatura, tras invertir "800.000 euros". Además, se añade un programa de inserción laboral para personas desempleadas de larga duración y en riesgo de exclusión social, que afecta en Bizkaia a “46.000 personas”, en donde se invertirán “4.285.000 euros”. Y una actuación para mejorar la empleabilidad de los jóvenes, con un importe de “2.857.140 euros”.

En el capítulo de la cohesión social, Laespada ha informado de siete propuestas que tienen como objetivo “crear una red sostenible y avanzar en la igualdad de oportunidades para todos”. En este espacio ha incluido el programa de atención a mujeres, e hijos e hijas en situaciones de maltrato, que “ya está en funcionamiento” y que se llevará “1.100.000 euros” en esta legislatura.

Entre las prioridades, el departamento que dirige Laespada trabajará para poner “en primer lugar” el problema “oculto” de la explotación sexual con la elaboración de un plan específico, en colaboración con Emakunde y los ayuntamientos, con un presupuesto de “150.000 euros”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, se desarrollará en Bizkaia el modelo “House in first” (La vivienda, lo primero), una “nueva” estrategia para personas sin hogar, aplicada en países anglosajones, a la que destinarán “715.000 euros”.

Como ya explicaron otros responsables forales, el departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, participará junto con las áreas de Desarrollo Económico y Territorial, y Acción Social, en un proyecto para que Bizkaia se convierta en un “nodo de referencia en innovación social” con la idea de impulsar iniciativas “con valor”. Empleo aportará “550.000 euros” de una inversión total que alcanza los “4.150.000 euros”.

Finalmente, el departamento de Laespada dedicará “750.000 euros” para garantizar la protección de las personas refugiadas gracias al programa Goihabe. Otros “36.000 euros” irán destinados a elaborar un “plan director de cooperación internacional”; y “55.000 euros” en sacar adelante la Norma Foral de Igualdad. Estas dos últimas acciones se abrirán a la participación ciudadana a través de diferentes canales. Laespada espera que las Juntas Generales de Bizkaia aprueben la norma de Igualdad “en el último trimestre de 2016”.

GRUPOS JUNTEROS

La oposición -EH Bildu, PP y Podemos Bizkaia- ha criticado el peso económico del departamento foral de Empleo para desarrollar la estrategia Bizkaia Goazen 2030 . “Los 11,3 millones de euros no llegan ni al 2%” de la inversión total, cifrada en “642 millones”, ha señalado Eduardo Andrés. “Parten de un presupuesto que no compartimos”, ha añadido Mikel Isasi, de Podemos.

“No todo se puede ver desde el punto de vista económico” ha contestado la socialista Castelo, para la que el plan presentado en febrero por el Diputado General es “estratégico” y tiene un recorrido “a medio y largo plazo”. El plan “trasciende del ámbito económico”. “Su valor no reside en las cantidades, sino en las características”, ha coincidido la jeltzale Maria Esther Furundarena.